



Murrizketa sozialik eta jarrera xenofoborik ez

2011ko bukaeran, Eusko Jaurlaritzak gure zerbitzu sozialen prestaziorik garrantzitsuenetako bat den Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE, RGI erdaraz) kobratu ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora igotzea erabaki zuen; zehazki, urtebete eskatetik hiru urte eskatzera pasatu zen.

Horren ondorioz, pertsona asko gure gizarte babes sistematik kanpo geratu ziren.

Murrizketa sozial horri aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2012ko uztailean, Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL, AGI erdaraz) sortu zuen. Prestazio hori jasotzeko eskatzen den erroldatze denbora urtebetekoa den; hain zuzen ere, Patxi Lopezen gobernuak murrizketa egin aurretik, DBE kobratzeko urteetan eskatu izan den erroldatze denbora bera.

Beste modu batean esateko, DBE urteetan izan duen erroldatze denborara itzuliko balitz, DBL berez desagertu egingo litzateke, lehen zeukan estaldura soziala berreskuratuko lukeelako. Murrizketa murriztuko litzateke.

DBL izeneko prestazioak izaera unibertsala dauka, hau da, baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago, berdin dio nongoak diren, DBEekin beti gertatu izan den bezala.

Gogorarazi behar dugu DBLa Gipuzkoan bizi diren 1.422 familia unitatek jasotzen dutela eta familia horietan 700 ume daudela, legez babestu beharrekoak.

Foru Gobernu berriak hasieratik jarri nahi izan du zalantzan DBLa eta, horretarako, argudio xenofoboak erabili ditu, erakartze efektoa ("efecto llamada" delakoa) aipatuaz, dakienean onuradun kopurua egonkortu egin dela. EAJk eta PSEk gobernatzen duten Foru Aldundiak PPko Javier Marotok irekitako bidearekin bat egin du murrizketa sozialak egiten jarraitzeko eta bere jarduera justifikatzeko.

Hori dela eta, Hernaniko Udalak honako mozio hau onartzen du:

1.- Hernaniko Udalak bere babesa adierazten die zerbitzu sozialen erabiltzaile guztiei, inolako salbuespenik gabe; eta gogoratu nahi du ongizate soziala herritarren eskubidea dela. Halaber, bere aitortza adierazi nahi die zerbitzu sozialen langile guztiei, beraiek baitira eskubide horren bermea.

2.- Hernaniko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Diru sarrerek Bermatzeko Laguntza (DBL-AGI) izeneko prestazioa erasotzen jarraitzeari utzi eta, bereziki, hori justifikatzeko argudio xenofoboak bere diskurtsotik desagertarazteko.

3.- Hernaniko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio DBL izeneko prestazioa bertan behera ez uzteko.

4.- Hernaniko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio planteatu diezaiola Eusko Jaurlaritzari Diru sarrerek Bermatzeko Errenta (DBE-RGI) jaso ahal izateko eskatzen den errolatze denbora hiru urteetatik urtebetera pasa dezala, hain zuzen ere, lehen zegoen bezala.

5.- Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mozio honen hirugarren puntuan jasotakoa lehenbailehen burutu dezala.

EH Bildu Udal Taldea

Hernanin, 2016ko apirilaren 20an

